



## Herriko kirolariei omenaldia

**ZIZURKIL** ▶ Atzo, Hamabi Orduz  
Kirolean; gaur amaituko da Kirol  
Asteburua, pilota partidekin ▶ 7



Gazteko bat, atzo, euskal jolasetan aritzen, Intxaur frontoian. I. GARCIA



N. URBIZU

## Giro apartan, euskara ederra entzungai

**ARESO** ▶ Kalejira, pilota partidak, dantza, herri bazkaria, banabar  
lehiaketa, magia saioa... Euskararen Eguneko ospakizunetan ▶ 5



### LANDARRI, S.L

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa  
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak	- Hilerrien proiektuak	- Panteoiak
- Lurpetik atera	- Hilerrien eraldaketa	- Hilobiak
- Gerakinen lekualdatzea	- Eraikuntza ezberdinak	- Estelak
- Gerakinen errausketa	- Hilobi apaingintza	- Fotozeramikak
- Errausketa zerbitzua	- Hilarriak	- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behea - 20400 Tolosa      Bidasoa kalea, 7 behea - 20100 Errenteria  
Tel./Faxa: 943 67 01 14                      Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41  
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552              Zerbitzu Iraunkorra: [www.landarri.com](http://www.landarri.com)



# jantzi

**hitza**ren  
jertse berriak

HITZAren egoitzetan salgai

## ASTEKO IRUDIA ▶



IÑIGO TERRADILLOS

Txotxongiloen  
magiak  
txundituta

**Leire Montes** ▶ Urtero moduan, aurten ere herrialde askotarikotxo txotxongiloek magia eta kolorez bete dituzte Tolosako txokoak. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren 23. edizioak Txinari egin dio tarte berezia, baina gainontzeko herrialdeetako emanaldiak ere nabarmentzekoak izan dira. Guztira, 8 herrialdeetako 20 konpainiek hartu dute parte Titirjain, eta 21 ikuskizunen 143 antzeppen egin dituzte, Kasinoan, Gorosabelen, Kultur Etxean eta Beotibarren. «Leidorren hutsunea kalitateak orekatzea» zen TEEko antolatzaileen desioa. Tolosaldeak ere izan du ordezkariarik jaialdian: Asvinenea, hain zuzen ere, *Bikote orojakile* lanarekin. IÑIGO TERRADILLOS

## UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

## Infantaren 'sex appeal'-a



**N**ire lagun batek hiru musa dituela esan ohi du: Elena Infanta, La Pantoja eta Rosa (bai, *Operacion Triunfo* irabazi zuen hura). Eredue omen ditu. Ulertuko ez banu bezala begiratu ohi diot halakoak botatzen ditueneari eta, bere Elena kuttunaren *sex appeal*-

az hitz egiten hasten denean, barre algar disimulatzea oso gogor egiten zait. Hala ere, serio eutsi ohi dio bereari: bere hiru musik horiek direla ondo dakiela erantzuten du. Eta berdindola nik aurrepigarra barre egitea, haietaz harro jarraituko duela nire iskezk haratago.

Orain arte lagun honen jarrera ulertu ez dudalakoan nago; izan ere, zer izan dezakete erakargarririk halako hiruk hogeita piko urteko gazte batentzat? Infanta, tonadillera... Ez dakit, nahiko groteskoak dira eredu edo musatzat, ez

dago horren dudarik. Nolanahi ere, asko dira, Ebroz bestaldean, hiru pertsonaioi halako miresmena-edo diotena, nahiz eta horrelakorik ulertzea (zinez) zaila suertatu. Zergatik ote? Obeliek bezala erromatarrok seko jota daudela sinetsi behar ote dugu? Argi dago Infantak, tonadillerak eta abeslariak *freack* eta arrarotik (utz dezagun horrela) zertxobait badutela, kabala den inork ez luke haien antzik izan nahi...

Segur asko azken horregatik dute, hiru ere, duten arrakasta meseta ingu-

ru horietan: kabala den inork ez luke haien antzik eduki nahi. Baina hirurek ere diren bezalakoak izaten jarraitzen dute, beren *freakytasunaren* inolako kontzientziarik izan gabe. Eta horregatik aukeratu du nire lagunak eredu estrainook edukitzea: musatzat hiru horiek edukitzeak besteengandik desberdintzen du, eta ni bezalakoan iskeki muzin egitean besteei jaramonik egin gabe bera den bezalakoak izateko lehen pausoa ematen du. Beno, agian nire lagunarena ez da plan txarra. Hona nire musa berriak: Toni Gasset, Arzallus eta Mafalda (eta ateratzeko norberak nahi dituen ondorioak).

hitza

lagunen  
**txokoa**

▶ HITZAREN HARPIDEDUN  
TXARTELAREKIN %5\*-eko  
BEHERAPENA izango duzu  
zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

## Egin zaitetz harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI  
KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

IRITZIA ▶ ONINTZA LASA (TOLOSAKO UDALEKO EUSKARA ETA HEZKUNTZA ZINEGOTZIA)

## Direnek egiten badute euskara salbu da

Urtero gisa, abenduaren 3 honetan euskara aipagai izan dugu. Jakina da hizkuntza, gauza bizia izanik, urtean behin gogoan izateagatik ez dugula bere biziraupena bermatuko eta, horregatik, behin eta berriro errepikatzen dugu egunerokotasunean ohikotasunez erabili beharreko komunikabide aukera izan behar dela.

Tolosako datuen arabera, eskolaratze datuek baikortasunerako parada ematen digute, datu orokorrak ikusita ia %100 D ereduaren eskolaratua baita —ho-

betu beharra Lanbide Heziketa esparruan dago—. Aitzitik, erabilera datuek beste zerbait diote, guztiz aurkakoa. Ez da proportzionaltasunik mantentzen eta beherantz egiten dute. Ezkertasunean erori gabe, errealitate honek merezi du gogoeta sakon bat. EAEn ematen den zerbait da orokorrean —Nafarroan eta Iparraldean egoerak ez du zer ikusirik, euskararen egoera are eta okerragoa delarik—, baina gure gertuko gizarteari dagokionean, Tolosa gune euskaldun samarra (%65 euskalduna) eta Tolosal-

dea gune euskalduna izanik (%80tik gora), zer dela-eta erabilerak ez du bat egiten ezagutzarekin? Masa kritikoa nahikoa izanik, zerk esplikatu dezake jarrerari? Orokorrean, euskararen egoera diglosikoa dela kontuan izanik, baina gure bailaran datuak baikorragoak direla jakinik, zer gertatzen da?

Euskara arduradun gisa, behin eta berriro esan izan dudana bezala, tresna, baliabide, kanpaina... izan eta egin ditzakegu administrazioetik, baina transmisioan norberak du bere erantzukizuna, eta hor

denok dugu gure ekarpeneko aukera: etxean, familian, lagunartean, lanean... Euskara jatorri ezezaguneko hizkuntza dugu, bitxia, mendi tartean globalizazio garai honetan mantentzen dena, erro bereziko latinera edo besterekin zerikusirik gabekoa orokorrean... Horrek guztiak izakera exotikoa ematen dio, baina... Gure ahotik hitzak, euskal hitzak ateratzen ez badira eguneroko, konturatzerako, gure herriaren zeinu bizi den euskara ikasgaietan jorratzera muga daiteke.

Euskarak, mendeetan zehar iraunduen gure hizkuntzak, iraungo du hiztunak baditu. Tolosan izan badira, eta direnek egiten badute, Tolosan aurrera egingo du gure hizkuntzak.

BI HITZETAN ▶ JON IRAOLA (ETB1-EKO 'WAZEMANK' SAIKO AKTOREA)

Urtzi Urkizu-Berria ▶ Joxean Tolosa amezketarrari Jon Iraola aktoreak (Ibarra, 1980) egiten dion imitazioa ahoz aho dabil. *Wazemank* saioaren arrakastaren adibide nabarietakoa da, kalean maiz esaten baitiote Iraolari: «Egongo gatzink!».

**Zein da zure ustetan 'Wazemank'-en arrakastaren gakoak?**

Naturalak gara. Esketxak onak iruditzen zaizki, eta Anjel Alkain ere izan daiteke arrakastaren arduraduna. Jendea asko gustatzen zaio Alkain.

**Batzuek diote euskal umorea egiten duzuela.**

Nik ez nuke esango euskal umorea denik. Esketxek hemen edo kanpoan berdin funtziona dezakete. Ez zait iruditzen euskal umorea egiteko helburua izan behar dugunik.

**Joxean Tolosaren pertsonaia-ekin ondo pasatzen al duzu?**

Bai, ni gustura nago. Baina imitazioa baino gehiago pertsonaia erreferente bat da.

**Non sartzen duzu zure ile luzea esketx horretan?**

Ile-apaintzaileari galdetu. Ilea leundu eta atzean gordetzen didate. Ordubetetik gora pasatzen dute lan hori egiten.

**Tolosak berak imitazioa nola hartu duen ba al dakizu?**

Ez. Entzun dut behin edo beste ikusi duela eta imitazioa ez zaiola inporta.

**Anjel Alkainek, Xabier Euzkitzerena egiten, batzuetan ezin dio barreari eutsi, pantailan ageri denez.**

Esketxak ez du testu finko bat, beste esketx batzuek duten be-

## «Entzun dut Tolosak behin edo beste ikusi nauela eta ez zaiola inporta»



ETB

zala. Gidoia nik idazten dut Iñaki Zapirainekin batera, lauzpabost punturekin. Ondoren, inprobisatze lan handia

sartzen da, eta txorakeria denezte botatzen ditugu. Esketxaren grazia hor ere egon daiteke.

**Zu zeu pilotazalea al zara?**

Bai. Ez naiz zale sutsu horietako; baina, bai, gustatzen zait pilota. Azkenaldian, gainera,

gero eta partida gehiago ikusten ditut.

**Beste zein pertsonaia-ekin gozatzen duzu?**

Joseina Etxeberria Euskadi Gazteko esatariarena egiten hasi naiz. Hemendik gutxira Mañukortarena egingo dut. Pixkanaka pertsonaiak aterako direla uste dut. Alkainek imitazioetan keinuak lantzen ditu gehiago eta nik ahotsa.

**Aktoreen artean giro ona duzuela nabaritzen da, ezta?**

Bai, hori ezinbestekoa da umorea egiteko. Gure artean ez bada gura ondo konpontzen, ez dago zer eginik.

**'Wazemank' telbistako lehen esperientzia da zuretzat. Zer moduz?**

Ondo. Ez dut lan bezala hartzen, eta gustura joaten naiz grabatzera.

**Antzerkian zer egin duzu?**

*Wazemank*-eko Mikel Pagadizabalekin batera antzezlan bat egin genuen, imitazioetan oinarrituta. 13 emanaldi egin genituen. Baina nik ez dut inoiz antzerki eskolarik jaso.

**Etorkizunean zer pertsonaia egitea gustatuko litzaizuke?**

Juanan Larrañaga egingo nuke. Une honetan 80 pertsonaia egiten ditut, gaztelaniaz eta euskaraz. Radio Euskadin, astearte goizetan, gaztelaniazkoak egiten ditut: Tamara, Torrente...

**Zein da zure aktorerik gustu-kuena?**

Anartz Zuazua gutxitan azaltzen da *Wazemank*-en, baina asko gustatzen zait nola egiten duen lana, eroso dabil. ◀

### iragarki laburrak ▶

**Garbitzaileak.** Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz. 943 31 37 82.  
**Gidariak.** Aldundian behar dira. Behin

betiko kontratua. Informa zaitetz. 943 31 37 82.  
**Urgentea.** Haur zaintzaileak behar dira, Haur Eskoletako hezitzaileak. 943 31 37 82.

**Ohar garrantzitsua.** Ezintasun fisikoren bat badaukazu, lor ezazu postu finkoa. %5 erreserbatua. Informazioa doan. 943 31 37 82.  
**Suhitzaileak, udaltzaingoa.**

Udaletarako lanpostuak. Informazioa doan. 943 31 37 82.  
**Administrari laguntzaileak.** Lanpostuak, udaletarako. 1.200 euro. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik

15:00etara. Informazioa doan. 943 31 37 82.  
**Laborategia.** Lanpostuak: teknikoak, ikertgetziko laguntzaileak, Eusko Jaurilaritza. Informazioa doan, 943 31 37 82.

## BERASTEGI ▶ ANTZERKIA

# Makillaje eta takoi artean

Berastegiko antzerki tailerra sortu zenetik bi urte beteko dira laster, antzerkirako zaletasunak elkartu ditu taldeko kideak eta «lagunarteko giroa» omen da nagusi

MARTA SAN SEBASTIAN

Uste dut herriko saltseroenak gabiltzala Berastegiko antzerki tailerrean», aitortu du Olatz Etxeberria gazteak. Izan ere, makillaje, arropa eta txapela horien atzean herri plazetako oholntza gainetara igotzeko «lotsagabe puntu bat» beharrezkoa dela gaineratu du Garbiñe Ezkerra taldekideak. Berastegiko antzerki tailerreko kideak dira Olatz Etxeberria eta Garbiñe Ezkerra. Euren lehen helburua «ondo pasatzea» dela diote eta, bide batez, lagunak eskuatik antzerki munduan hanka bat sartzen ere ari dira.

Duela bi urte inguru sortu zen Berastegiko antzerki tailerra. Egun zortzi lagunek osatzen dute, baina ia 14 ere izan ziren. Taldeak oraingo izenik ez du, baina, Ezkerrak dioenez, «hori ere aurten egin beharrezkoa da». Egitasmo dezente dituzte aurtengo ikasturteari begira: izan ere, laster hasiko dira berriz ere tailerreko eskolekin.

Aurten, taldeko buru bat aukeratzeko asmoa dute, bestela oilategia antolatzeko modurik ez dagoelako. «Nahiko desastreak» direla dio Etxeberriak. Urte osoan antzezlana prestatzen aritu beharrean, azken urtean ibiltzen omen dira entseguak egiten. «Antzezlana jendarean aurkeztu aurretik, azken urtean hasten gara benetazko entseguekin», dio. Aurtengoan, beraz, diziplina apur bat iritsiko zaie berastegiarrei.

Lagunarteko giroa dute taldean. Tailerra sortu zenean pertsona zehatz batzuegana jo zutela argitu du Ezkerrak, ziur aski interesaturik egon zitekeen jendarengana. Ondoren, herritar guztiei ere zabaldu zieten deialdia. Antzerki tai-



Ama begira zazu izan zen taldeak egin zuen lehen antzezlana. HITZA



Etxean dituzten jantzi eta trasteak erabiltzen omen dituzte. HITZA

lerrean ez dute soilik gaztekoek tokia; izan ere, 48 urteko eta 35 urteko antzerki zaleek ere parte hartzen dute. Hala ere, gehienak 18 eta 24 urte bitarteko gazteak dira. Bakoitzaren ordutegia dela eta, zaila omen da bat egitea. Hori dela eta, la-

runbat goizetan elkartzen dira. «Udaletxean gela txiki bat dugu jantziak eta materiala gordetzeko, eta eskolako gimnasioan egiten ditugu entseguak», azaldu du Ezkerrak.

Hasiera batean, taldeari izena jartzea eta antzerki taldeko

erregistroan izena ematea prestatu zuten, baina abantailak eta desabantailak aztertu ondoren, komenigarria ez zela ondorioztatu zuten. «Guk ez dugu dirurik lortzen antzeziarekin, materialerako diru apur bat ematen digu Udalak; eta, beraz,

## ANTZEZLANAK

Antzerki herrikoiak eta umoretsuak antzezteak gustatzen zaie, eta Berastegiko euskalkia erabiltzen dute beti

uste dugu ez digula konpenetsatzen erregistro horretan dirua uzteak», azaldu du Etxeberriak.

## Gimnasiotik jendaurrera

Lagun giroan elkartzeko aitzaki ezin hobea dute antzerkia. Hala ere, taldeko guztiak gustatzen zaie bereziki antzeziaren mundua. «ETB1-eko *Kuxkuxeroak* saioan aritu izan naiz eta orain produkzioa ikasten ari naiz», argitu du Etxeberriak. Hala, gimnasioko entseguak txiki geratu eta kalera irtetzea ere erabaki zuten. Lehenengo urtean *Ama begira zazu* antzezlana prestatu zuten eta, lehenik, Berastegiko gazte festetan eta, ondoren, haren jarraitpena uztaileko festetan antzeztu zuten. Jendearen gustukoa izan zen. Ondoren, Elduako jaietan aritzeko eskaintza egin zieten. Aurten, aldiz, *Maritxu nora zoaz?* antzezlaren prestateta lanetan aritu dira.

«Antzerki herrikoiak ditugu gustuko, batez ere, komedia eta umore ukitua dituztenak, herrian ere hori eskatzen dutelako», dio Ezkerrak. Liburuetatik hartutako pasarteak antzeztzen dituzte normalean. Gainera, Berastegiko euskalkia erabiltzen dutela ere jakinarazi dute, antzerki herrikoiak egiteko euskara batua ez dutelako egokitzat jotzen.

Etxeko arropak eta trasteak erabiltzen dituzte euren antzerkiak girotzeko. «Autoa trastez bete-beteta eramaten genuen lehen, baina orain beharrezkoa dena soilik eramaten ikasi dugu». Hasierako ilusioa galdu ez dutela antzematen zaie hitzetan eta aurpegietan. Ea laster ditugun berriz ere inguruko herrietako oholntza gainetan.

## hilberriak eta urteurrenak ▶



Juan Garmendia  
Dorronsoro  
jauna



Herenegun hil zen, 52 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

ORENDAINGO UDALA

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR, IGANDEA, arratsaldeko SEIETAN, Orendaingo ANDRE MARIAREN ZERURATZEA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

ORENDAIN, 2005eko abenduaren 4a

helbidea ▶ Kalea baserria

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

## Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



## ARESO ▶ EUSKARAREN EGUNA



**Bazkaria.** Aresoarrak, elkartean, babarrunak dastatzeko prest. N. URBIZU



**Pilota.** Xabi Eraso eta Mikel Onsalo pilotariak, partida borrokatua jokatu ostean. Emaizta 30 eta 29koa izan zen Onsaloren alde. N. URBIZU



**Taloak.** Herriko plazan taloak prestatzen aritu zirenetako emakume bat, gero, txistorra eta gaztarekin jateko. N. URBIZU



**Dantza.** Txikienak Sorgindantza egiten. Hamar haurrek dantza guztietan hartu zuten parte, leitzarrek egiten dituzten entsuetan ikasitakoa ederreki erakutsiz. N. URBIZU

# Euskara gori-gori, bai ahoan eta bai giroan

Eguraldia lagun, atzokoan, bertako musika, kirola, jakiak eta euskararekin gozatzeko jardunaldi biribila

## NEREA URBIZU

Abenduko hilabetearen egonda ere ezin esan atzoko giroa berezkoa izan zenik, oso egun polita eta argitsua izan baitzen. Eguraldia lagun, berez toki itxian egin behar ziren hainbat ekitaldi kanpoan egitea erabaki zuten aresoarrek, Euskararen Egunean.

Hasteko, 12:00ak aldera, musikaz lagunduta kalejira izan

zen, bertako trikitilari eta panderojotzaileez sortua.

Pilota partida bertan behera utzekotan ibili ondoren, aurreko gauean euria egin baitzuen, azkenik jokatzetik izan zen, eta 11 urteko bi aresoar aritu ziren jokoan: Mikel Onsalo eta Xabi Eraso. Kasu honetan lehenengo atera zen garaille, tanto bakarrek aldearekin.

Ezin ahaztu plazan bertan goizean zehar usaindu eta das-

tatu zitezkeen jakiak: Ramonek, Kattalinek, Anak, Martak, Maitanek eta Milak prestatutako talo goxoak, gazta, txistorra, edota kokoloarekin jangai. Ardo hartzerik ere bazen, eta, noski, baita freskagarriak ere.

Egitaraua pixka bat atzeratu egin zen, pilotalekuan suertatutako arazoak zirela medio, baina berehala atera ziren herriko 10 dantzari txikiak. Eskainitako dantzak Agurra, Sorgin-

dantza, Zazpi jauzi eta Karakola izan ziren, hauek guztiak txistu batez lagunduta. Saioa ongi atera zedin, astero ibili dira gogotsu gimnasioan entsetzen, eta nabaritu dela esan beharra da.

Eta herriko plazatik herriko elkarte batera: bertan bazkaria espero zuten herritarrek. Baina, horren aurretik, antolatutako beste ekintza bat egin behar zen: banabar lehiaketa, alegia. Txapelketa horretan bost plater aurkeztu zituzten: zein baino zein itxura inbidiaerriagoak. Bertan prestatu behar ziren eltzak, eta bertan ere, dastatu. Eltzarik onena saritzea erabaki zuten, soilik. «Saririk gabe geratu zirenak ere onak zirelako», zioen herriko emakume batek. Kasu honetan epai lanean Ur Algero eta Joxe Manuel Olazabal aritu ziren, eta azkenean Txaro Goikoetxeak pres-

tatutako babarrunak aukeratu zituzten. Saritzat, ardo, txanpana, mantala eta sukaldari kapela eman zioten. Ez da zaila jakitea zein izan zen herritarren menua. Kafea hartzeko garaiarekin bat, ia bazkalostean, hain zuzen, trikitilariak girotu zuten elkarte, egun entretengarri honi jarraikiz.

Gutxi itxaron behar izan zuten bertan Sun Magoa ikusteko eta bere magiarekin haurrak —eta ez hain haurrak— aho zabalik uzteko, eta, zergatik ez, barre batzuk egiteko.

Aurtengo egun honekin aresoarrek 13 urte daramatzate Euskararen Eguna ospatzen. Hasiera batean, duela 13 urte haurrentzako parkea inauguratu zuteneko eguna izan zena, orain Euskararen Eguna izatera pasatu da. Zalantzarik gabe, Areson giro aparta eta euskara ederra entzun zen.

LARRAUL ▶ KULTUR ASTEA

# Asteburua ekitaldiz blai aurkeztu da Kultur Astea dela eta

Gaur, azken egunean, eskulan lantegia, eskupilota erakustaldia eta talo eta gaztain jatea egingo dituzte



Iraitz ipuin kontalariak Amona Ximonaren madalenak ipuina kontatu zien herriko gaztetxoëi. NEREA LIZARTZA

NEREA LIZARTZA

Jan-edana, txapelketak, erakusketak, lantegiak... ezer ez da falta izan, ezta faltako ere, Larraulgo aurtengo Kultur Astea. Izan ere, adin eta gustu guztietara egokitutako egitarau oparoa izan dute orain arte eta aurrakusten dute gaurko ere. Ostiralean eman zioten hasiera larrauldarrek aurtengo Kultur Asteari. Hala ere, lehen-go larunbatean antolatu zuten aste hau zela-eta talo ikastaroa.

Atzo arratsaldeko lehen orduan mus txapelketa egin zuten Katillutxulo elkartearen. Ondoren, haurren txanda iritsi

zen; Iraitz ipuin kontalaria aritu zen gaztetxoentzat *Amona Ximonaren madalenak* ipuina kontatzen. Eskuzabal hartu zuten bildutako haurrek ipuin kontalaria; adi entzun zuten kontaketa, baita kontalariak egiten zizkien galderei erantzun ere. Guztien artean, giro beroz bete zuten udaletxea. Ordu berean hasi eta iluntzera bitartean, artisautza erakusketak eta argazki zaharren erakusketak izan ziren museoan. Erakusketak honek atek zabalduko ditu gaur ere, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Gaur, azken eguna bada ere, egitarau oparoa dago aurrei-

kusita; goizez eta arratsaldez hainbat ekitaldi egingo baitira. Goizeko hamaiketatik aurrera, eskulan lantegia egingo dute Katillutxulo elkartearen. Eskulanak egiten ikasi nahi duen edonori egin diote azaltzeko deialdia antolatzaileek.

Arratsaldeari dagokionez, gazte eta gaztetxoek eskupilota erakustaldia egingo dute Murgilazpi pilotalekuan. Ekitaldia ez da lehiakorra izango, eta erakustaldia egin nahi duen edonork har dezake parte. Azkenik, aurtengo Kultur Asteari behin betiko amaiera emateko, arratsaldeko seietaik aurrera, talo eta gaztain jatea egingo dute Katillutxulo elkartearen.

iragarki laburrak ▶

**SALGAI**

**Autoa.** Citroen Xara. 1,9 diesela. 2001. urtekoa. Beti garajearen egona. Prezio negoziagarria.

Interesatuak deitu 653 74 05 11 telefono zenbakira.

**Autoa.** Renault Space. Motorra 2.200 DCI. 2001ekoa. Deitu 649 89 98 03 telefono zenbakira.

**Motorra.** KTM EXC 250 endurokoa. 2005ekoa. Matrikulatuta. Egoera onean. Deitu 618 25 49 60 telefono zenbakira.

**Autoa.** Fiat Brava diesela salgai. Nahiko berria. Deitu 943 11 71 60 telefono zenbakira.

**Egurra.** Su egur lehorra salgai. Pagoa eta haritza. 615 75 57 62 (arratsaldetan).

**LANA**

**Sukaldaria.** Neska euskalduna behar da kartan eta menuan esperientziaduna. Lanaldi osorako. Igandeak jai. Deitu 606 61 52 93 telefono zenbakira.


**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, lege berriaren arabera, lantegietan ezingo da erre. Halaber, zenbait tabernatan erretzaileentzat guneak jarri beharko dituzte. Zer iritzi duzue? Gogorregia al da legea? Edota gogorregia izan beharko luke? Zergatik?

TOLOSA ▶ GIZARTEA



## Solidarioz beteriko igerilekua

**N. Lizartza ▶** Carlos Peña igerilariak Afrikan malariari aurre egiteko dirua biltzeko igerian egin zuen atzo Usabal kiroldegian. Ez zuen, baina, bakarrik egin; 2 euroren truke txartelak erosi zituztenen laguntzarekin aritu baitzen. Hirukide ikastetxea aritu da ekitaldi solidarioaren antolaketan laguntzen. NEREA LIZARTZA

TOLOSALDEA ▶ POLITIKA



## Kontzentrazioa Gordoren alde

**N. Lizartza ▶** Javier Gordo errefuxiatuaren espetxeratzeko zela eta, kontzentrazioa egin zuten ostiralean Trianguloan Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren deialdiari erantzunez. Bildutakoek Gordoren askatasuna eskatu zuten. NEREA LIZARTZA

TOLOSA ▶ POLITIKA



## Abenduaren 6rako deialdiak

**N. Lizartza ▶** Tolosaldeko Bai Euskal Herriari (BEH) ekimenak datorren abenduaren 6an, Espainiako Konstituzioaren egunean, «normaltasunez lan egiteko» deialdia eta 19:00etan Durangon egingo den manifestaziora joateko deia egin du. HITZA

ZIZURKIL ▶ KIROL ASTEBURUA

# Kirolariei omen

Kirol Asteburuaren amaiera, gaur, pilota txapelketako finalekin; herriko kirolariei omenaldia herenegun, eta Hamabi Orduz Kirolean atzo, beste ekitaldiak



Udaleko ordezkariak eta omendutako kirolariak, Atzulondo kultur etxean egindako ekitaldian. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Kirol Asteburuaren azken eguna da gaur. Intxaurre pilotalekuan emango diote amaiera herriko kirolarien lana erakustea helburu izan duen Kirol Asteburuari, 12:00etan hasiko den pilota txapelketaren finalekin.

Aurretik ere, herenegun arratsaldean eta atzo, ekitaldi ugari egin dituzte. Aipatzekoa da Udalak eskainitako omenaldia herriko kirolariei, urtean zehar egin dituzten merituegatik. Omenduen zerrenda luzea da, Zizurkilgo kirolarien maila handia denaren seinale: ehizan, Modes Iraola eta Fermín Mourenza; halterofilian, Jon Sasiain, Ekaitz Kortajarena, Teddy Martínez, Jon Tecedor, Igor Sasiain, Jon Ander Iriarte, Iker Hernandez, Mikel Quintana eta Lourdes Gorostegi —azken biek ezin izan zuten joan—; atletismoan, Joxean Albedi eta Tamara Lozano; herri kirolean, Juan Manuel Erasun, Joseba Otaegi eta Xiba taldea; eta zaldi lasterketan, Asier Mujika. Sorpresarik ere izan zen, Batis Kortajarena Danena-Olaederen halterofilia taldeko entrenatzaileari ere diploma eman baitzioten, «kirol horretan egiten ari den lanarengatik».

Diploma banaketan ondoren, mahai inguru interesgarria egin zuten Juan Manuel



Atzo goizean euskal jolasetan aritu ziren Intxaurre frontoian. I. GARCIA

Erasunek, Batis Kortajarenak, Modes Iraolak eta Jon Tecedorrek. Bakoitzak urten zehar egindakoaren errebasoa egin eta gero, beren kirolerako egoera eta, orokorrean, kirola nola

dagoen aztertu zuten. Batis Kortajarenak eta Juan Manuel Erasunek bat egin zuten banakako kirolek duten egoera zailaz hitz egitean: «Mediatikoki ez dute oihartzun handirik iz-

ten, eta zaila da gazte jendea horrelako kirolerara hurbiltzea». Jon Tecedorrek zioenez, halterofilian eta beste kirol minoritarioetan goi mailan aritu ondoren zaila da lan munduan sartzea. «Zure kirol-bizitza amaitzean ez da laguntzarik ematen lan munduan hasteko eta hori aldatu beharra dago». Modes Iraolak ere ehizak kirol moduan praktikatzek eskatzen duen esfortzua aipatu zuen, bai ekonomikoa eta bai denbora aldetik. Etorkizunari begira, gazteei pazientzia izatea eta erakundeei kirola minoritarioei laguntza gehiago ematea eskatu zuen Kortajarenak. Erasunek kirolaren etorkizunerako eskolek duten garrantzia aipatu zuen: «Kirola eta heziketa elkarrekin joan behar dute».

## Egun guztian kirola egiten

Atzokoan haurrak izan ziren batez ere protagonista, Zizurkilgo Hamabi Orduz Kirolean egitarauaren baitan. Euskal jolasak eta jokoak, pilota, futbola eta halterofilia praktikatzeko aukera izan zuten egun guztian zehar. Parte-hartzaileei *buff* edo lepokoa oparitu zieten, eta baita hamaiketako eta merienda eman ere. Gau partean, tradizio handia hartzen ari den Gau Krosaren IX. edizioaren txanda izan zen.

TOLOSA ▶

## Zubiaren eragina jaso zuen atzoko azokak

Berrikuntzarik izan zen: aurtengo lehen pazko loreak sei eurotan saldu ziren

PABLO ALBERDI

Aurrean dugun zubi luzea dela eta atzo azokan ez genuen erosle askorik ikusi, eta saltzaileen artean ere ikusi genuen hutsuneren bat edo beste. Hala ere, eskaintza ez zen makala izan, eta berrikuntza garrantzitsuren bat edo beste ere ikusi genuen.

Aurtengo lehenengo pazko loreak 6 eurotan saldu ziren. Apaingarriko landareen zerrenda zabala izan zen, eta datozen asteetako Gabonetako apaingarrien aurkezpena espero dugu.

Onddo zerrenda ere atzo zabala izan zen. Joan den astean kontrakoa esan arren, atzo ia 100 kilo ondoko izan ziren, baita ziza horiak, gamuza, mendiko angulak eta nikaloak ere.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Japoniar azalea	5,00	8,00
Zintziliko potoa	2,40	6,00
Pensamientoa	1,00	
Txilarra	3,00	4,30
Krisantemoa	4,00	12,00
Gineako Alegria	3,40	
Klabeledina	4,00	9,00
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbot	4,00	6,00
Txinar klabelina	2,50	
Antririno	1,00	
Salbia	1,00	1,20

## Bertako produktuak

Onddo	10,00	22,00
Ziza	12,00	
Ziza horia	15,00	18,00
Urra	2,00	
Gaztaina	2,00	2,50
Intxaurre	2,50	4,00
Mizpiradia	2,00	2,50
Basarana	4,50	5,00
Reineta grisa	1,00	
Babarrun Zuria	6,00	12,00
Tolosako Babarruna	8,00	12,00

## Produktu ekologikoak

Kalabaza	1,60	3,04
Baraburria	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Lebua	1,00	
Aza	2,50	3,00
Kogiloa	1,00	
Arrautzak	3,50	



**AGENDA ▶**

**ANTZERKIA**

**Tolosa.** *Kaputen kanta.*  
19:30ean, Bonberenean.  
6. urteurrenaren baitan.

**DEIALDIAK**

**Asteasu.** Nazioarteko  
Ziklo-Kros Txapelketa.  
Eti, 10:30etik aurrera;  
punta-puntakoen lasterketa,  
12:30ean.

**Asteasu.** Pirritx eta Porrotx.  
17:00etan, kiroldegian.

**Larraul.** 11:00etan, eskulan  
tailerra Katillutxulo  
elkartean; 11:00etatik  
13:00etara eta 17:00etatik  
19:00etara, artisau eta  
herriko argazki zaharren  
erakusketa, museoan;  
16:00etan, gazte eta  
gaztetxoen eskupilota  
erakustaldia, Murgilazpi  
pilotalekuan; 18:00etan,  
talo eta gaztain jatea,  
Katillutxulo elkartean.

**Zizurkil.** Kirol Asteburuko  
pilota txapelketaren finalak.  
12:00etan, Intxaur  
pilotalekuan.

**TITIRIJAI 05**

**Tolosa.** Asturiasko  
(Espainia) Teatro Plus  
taldearen *Egia da, egia da*  
lana, 16:30ean eta  
19:00etan, Gorosabelen;  
Txinako Guangdong Puppet  
Theater taldearen *Lingnango*  
*hagatxoek magia*, 17:30ean  
eta 20:00etan, Beotibarren.

**ZINEMA**

**Leitza.** *Charlie y la fabrica*  
*de chocolate* (Tim Burton).  
19:30ean, zinema aretoan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.  
**Tolosa.** Olarrega, A. Korreo kalea, 2.  
943 67 01 28.

**Bihar**

**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Tolosa.** Ebebeste, J. M. Gernikako  
arbolaren lorategiak, 3. 943 65 10 40.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia**  
**(107.5, 101.2 FM)**

11:00-13:00. *Hitzak hegan* magazina  
(errepikapena): elkarrizketak,  
*Mundurako leihoa*, kolaboratzaileak,  
agenda, porra, disko eskainiak...

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen  
egunkarian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

# Harien azken mugimendua

**TOLOSA ▶** Gaur esango du agur 23. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiak;  
atzo, besteak beste, etxeko txanda izan zen: Asvinenea taldea

**ERREDAKZIOA**

**T**xinari idatzi budistak  
itultzeko Mendebaldera  
eginiko bere bidaian, Tri-  
pitaka mojeak eta bere hiru  
ikaslek Bony mamuarekin egi-  
ten dute topo. Mamuak hiru  
tranpa prestatzen dizkie, ba-  
koitzean pertsonaia desberdin  
batean bilakatuz». Txinako  
Guangdong puppet theater tal-  
dearen *Lignango hagatxoek*  
*magia* emanaldiaren pasarte  
bat da arestian irakurritakoa.  
Mendebaldera bidaiatzeko, eta  
Chang Ping printzesaren bizi-  
penetaz, zinta dantzaz, borro-  
kaz eta Herensugearen eta  
Phoenix-aren istorioez goza-  
tzeko aukera izan zuten atzo,  
aste guztian bezala, Beotibar  
pilotalekura joan zirenak. Ha-  
gatxozko txotxongiloen magia,  
xarma, efektu bereziak eta tri-  
kimailuak, Titirijain. Joe Wong  
taldekideak Tolosako ikusle-  
goaren «berotasuna» azpima-  
rratu zion HITZARI: «Asko gusta-  
tu zaigu hemen antzeztea. Oso  
jende adiskidetsua topatu  
dugu Tolosan».

Kataluniako Valeria Guglietti  
taldearen *Ez ukitu nire eskuak*  
eta Madrilgo La Canica de Tite-  
res taldearen *Elefantetxoa* ere  
izan ziren ikusgai atzo. Baina  
tolosarrentzat guztietan bere-  
ziena etxeko saioa izan zen:  
Asvinenea taldearen *Bikote*  
*orjakilea*.

Zuzeneko zortzi abestik, an-  
tzerkiak eta txotxongiloek bat  
egiten dute eskualdekoen  
emanaldian: «Pentagramaren  
artearen hariak eta harien artean  
hitzak nahasten dira, bizi-  
tzen gertatzen den bezala, beneta-  
ko ondoriora iritsi ez gaitzen



Guangdong Puppet Theater-ek atzo eskainitako antzezlaren une bat. I. GARCIA

eta, hala ere, arduratzen gaituz-  
ten zenbait gairi buruz geure  
buruari galdezka has gaitze-  
zen». Hausnarketa egiteko pa-  
rada eskaini zuen taldeak Kas-  
kinoan. *Haus zoriekoa izan*  
*da eta Jostuntxo ausarta* ipui-  
nekin, Grimen ipuinei buruz Ja-  
noschek egindako moldakete-  
kin, hain zuzen ere.

Gaur, *Lignango hagatxoek*  
*magia* (Beotibarren, 17:30ean  
eta 20:00etan) eta *Egia da, egia*  
*da* (Gorosabelen, 16:30ean eta  
19:00etan) ikuskizunak izango  
dira ikusgai. Eta 23. Nazioarte-  
ko Txotxongilo Jaialdiaren ma-  
giak eta koloreak agur esango  
dio Tolosari. Behintzat, dato-  
rren urtera arte soilik.



Asvinenea taldearen *Bikote orjakilea* saioaren irudi bat. HITZA

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Ainara Zabala (Tolosa). Gaur  
3 urte. Zorionak eta muxu handi  
bat Saioa eta gurasoen partetik.



**URTE ASKOAN**  
Haizea Aikiza (Ikaztegieta).  
Gaur 8 urte ebeko bikienak.  
Zorionak denon partetik.



**ZORIONAK!**  
Maite  
Santxez Martin.  
MAITE ZAITUT!!

**HITZA, zorion agurren**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea**  
ezkontzak, jaioberriak...  
zoriontzeko, etorri: HITZAren egoitzara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!